

2. GAIA: GIZARTERATZE PROZESUA

- GIZARTERATZE PROZESUA, FASEAK ETA ERAGILEAK

Gizarteratzea gizabanakoek komunitate bateko ohiko bizimoduak ikasteko eta barneratzeko egiten duten prozesua da. Sozializazioaren bidez instituzioetan zein rol bete behar dugun ikasten dugu, jarrera, arauak eta baloreak barneratuz.

- Rola, egoera sozial batean, gizabanako batengandik bere estatusaren arabera espero diren portaera eta jarrerak dira. Rol bat hartzea norberak bestearen ikuspegia bere gain hartzea eta irudikatutako ikuspegi horretatik erantzutea da. Adibidez, prozesu horren bitartez, haur txiki batek gurasoei mesedeak eskatzeko momenturik hoberena zein den ikasiko du poliki-poliki.

Beste animali espezieetan, beren portaera gehienak aldeztatik biologikoki edo genetikoki finkaturik daude,

Aldiz, bizi rauteko gizakiak bere esperientzia sozialaren menpe dago, bere kultura definitzen dituen espektatiba sozialak barneratzeko duen gaitasunarenean hain zuzen ere.

- ★ GIZARTERATZE PROZESUA

Sozializazio prozesua, jaiotzean hasten den prozesua da, horretan zehar gizakia bere komunitatearen eredu kulturalak ulertzeko eta menperatzeko gai bihurtzen dira. Era berean, gizakiak beraien buruez kontziente bihurtzen dira, adimena garatuz.

Soziologoak bizitza osoan sortzen diren portaera- eta jarrera-ereduez interesatzen dira, hots, haurtzarotik zahartzarora sortzen direnez. Eredu horiek bizi osoa irauten duen sozializazio-prozesuaren parte dira; hain zuzen ere, sozializazioaren bidez, kultura jakin bateko kideentzat egokiak diren jarrera, balio eta portaera egokiak ikasten dira.

Sozializazioa haurtzaroan hasten eta erretirora arte jarraitzen duten giza elkarrekintzen bidez gertatzen da. Gauza asko ikasten ditugu gure bizitzako pertsona garrantzitsuenengandik; esaterako, hurbileko senide, lagun min eta irakasleengandik. Baina kalean, telebistan eta Interneten ikusten dugun jendearengandik ere ikasten dugu, bai eta film eta aldizkarietan ikusten dugunetik ere.

Gizarteratze prozesua, etengabeko interakzioa da arlo kolektiboan, gizarteratuz gizarteak iraupena mantendu, partaide berriak gizartean integratu eta ezaugarri propioak mantentzen ditu.

★ FASEAK

Gizarteratze prozesuan, 3 fase desberdintzen dira. Hasteko lehenengo gizarteratze fasea daukagu haurtzaroan ematen dena, bigarrena ikaste berriak integratzen direnean eta azkena haustura larriak edota berritzeak gertatzen direnena.

Hasteko lehen gizarteratzea azalduko dut. Haurtzaroan, integrazio soziala, lotura sozialak sortzen dira, prozesu honetan eragile nagusia familia da, oinarrizko talde soziala dena. Hemen ikaste sakon aegiten da luzerako irautenduena eta akritikoa dena. Gure buruaren inguruan dugun ideia irudia egiten dugu. Sinboloak, keinuak hautematen ditugu. Auto kontzientzia, auto estimua eta eredu kulturalak barneratzen ditugu. Fase hau geroko ikasketen oinarria da. Eskola gizarteratze eragile gozitiarra da. Hasieran eliteen jabetza zen, ilustrazioan zabaltzen hasi zen; gizartea hobetzeko, aldaketa sozialak eragiteko helburuarekin. Zientziak pentsamolde berria zabaldu zuen.

2 gizarteratze prozesua adinaren arabera geroko gizarteratzearekin lotuta dago.

Nerabezaroa, gaztaroa, langile izatea, familia-ardurak, zahartzaroa... Gizarteratze eragileen artean, hezkuntza sistema, berdinen taldea, kontsumo merkatua, estatuak, komunikabideak, klase sozialak... daude.

Hirugarren gizarteratze prozesua ez da ohikoena, ez da beti gertatzen. Haustura larria gertatzean hasten da fasea aurreko gizarteratzeetik haurtzarora gertatzen denean. Aurretik ikasitako eskemak, baloreak, jakintzak, helburuak baliogabetu egiten dira eta jada ez dira erabilgarriak. Horregatik, berrestu, eraldatu eta ordezkatu behar dira. Fase hau krisi pertsonal edo kolektibo oso larria gertatzen dena ematen da, adibidez; gaixotasun oso larria dagoenean, migrazioak, kartzelan egonaldi luzeak daudenean...

★ ERAGILEAK

Hil arteko sozializazio-prozesu etengabeko parte dira gure bizitzan eragiten eta geure buruari buruz dugun irudia aldatzen duten hainbat gizarte-indar.

Ikaskuntza-prozesua jaio eta berehala hasten da, eta hil arte irauten du. Jaioberriek entzuteko, ikusteko, usaintzeko, dastatzeko eta beroa, hotza eta mina sentitzeko gaitasuna dutenez, inguruko munduan etengabe orientatzen dira. Gizakiak, bereziki familiako kideak, haien gizarte-inguruneke parte garrantzitsua dira. Pertsonak, haurra elikatuz, bainatuz, paseatzera ateraz eta ongizatea eskainiz, haren beharrak betetzen dituzte. Familia instituzio bat da, oinarrizko talde soziala, eta lotura da familiaren jomuga, Familia bitartez, hezkuntza sistema, osasun sistema, lan merkatua, eliza sinesmen erlijiosoak... ezagutzen dira. Familia eredu anitzak daude.

Beste heldu batzuek, anai-arreba zaharragoek, komunikabideek eta erlijio- eta hezkuntza-instituzioek ere eragin nabarmena dute haurra arau femenino eta maskulinoetan sozializatzeari dagokionez. Gizarte batzuetan, nagusiki amek sozializatzen dituzte neskek eta aitek mutikoak; ohitura horren ondorioz, gerta daiteke neskatoek bizirik irauteko funtsezko trebetasunak ez ikastea. ziren bizirik, emakumeak baino. Interakzionistek gogoratzen digute maskulinitateari eta feminitateari buruzko sozializazioaz gain, ezkontzari eta gurasotasunari buruzko sozializazioa ere haurtzaroan hasten dela, familia-bizitzaren barruan. Haurrek maitasuna adierazten, kontu ekonomikoak kudeatzen, eztabaidatzen, senideei buruz kexatzen eta beste hainbat egoeratan ikusten dituzte beren gurasoak. Hori guztia aurretiko sozializazio-prozesu informal bat da; eta, horren bidez, ezkontuta egotea eta guraso izatea nolakoa izan daitekeen ikasten dute.

Familiaren kontzeptua eboluzioa izandu. Hasieran familia tradizionalaren kontzeptua zegoen non familia ekoizpen ekonomikoaren unitate bezala ikusten zen. Familia zabala eta seme ala ugari izatearen ideia zegoen. Sexuaren araberako lan banaketa zegoen. Industrializazioan, etxea ez zen lantoki bezala ikusten, familia nuklearrean seme alaba gutxiago zeuden. Sexuaren araberako lan banaketa zegoen. Gizona langilea zen etxetik kanpo emakumea, aldiz, zaintza lanak egiten zituen. Azkenik Post industrializazio garaian, familia nuklearrak eta eredu anitzak zeuden. Emakumeak lan merkatuan lan egiten hasi ziren. Amatasunaren atzerapena geratu zen.

Beste eragile bat hezkuntza sistema da. Funtzionalistek adierazten dutenez, eskolek, sozializazioeragile diren aldetik, haurrei gizartereko balioak eta ohiturak irakasteko funtzioa betetzen dute. Eskola gaur egun gizarteratze eragile goiztiarra da. Haren funtzio sozialak gizarteratzea, kohesio soziala lortzea da. Aurrerapen sozizala eragiten du eskolak eta lan merkaturako prestatu, pozizioak banatzen ditu. Gainera eskoletan haurren zaintza funtzioa betetzen da. Eskoletan derrigorrezko hezkuntza oinarrizko sozializazio eragilea da eta bertan ikasgaiak daude eduki homologatuak dituenak eta legalki ezarriak daudenak. Bestetik, eskolak nahi gabeko zenbait arau kultural transmititu egiten ditu, hala nola, portaera egokiak izatea, harreman kodeak, baloreak (lehiakortasuna, errespetua...), genero ereduak, desberdintasun ekonomiko etnikoak...

Beste talde eragile bat berdinen aldea da. Haurra hazten doan heinean, familiak garrantzia galtzen du gizarte-garapenean. Haren ordean, berdinen taldeek hartzen dute Meaden beste esanguratsuen rola. Berdinen edo kidekoen taldearen barruan, gazteak gutxi gorabehera beren adina eta antzeko gizarteestatusa dutenekin ibiltzen dira. Umeei denbora asko ematen dute lagunekin, jantokietan, eskolatik kanpoko jardueretan... Eragile hau erreferente nagusia da bigarren gizarteratze fasean. Bestetik, nerabezaroan informazio asko lortzen dute mundua ulertzeko eta epaitzeko modukoa. Identitate sostengatu bat lortzen dute, baita ziurtasun emozional zein fisikoa.

Genero-desberdinkeriak nabariak dira gazteen artean. Gurasoek, kidekoek eta komunikabideek sozializatzen dituzte haurrak, eta onarpen-arrazoi berberak identifikatzen dituzte, baina maila desberdinetan.

Azkenik komunikabideak daude. Gaur egun eragin handi duten gaur eguneroko bizitzan. Telebista eta, gero eta gehiago, Internet funtsezkoak dira haurren sozializazioan. Alabaina, hedabide horiek ez dute beti eragin kaltegarria izaten sozializazioan. Telebista-programek eta iragarkiek bizi estilo eta kultura ezezagunekin lotzen dituzte gazteak hurrek urruneko lurraldeetako bizitzari buruz ikasteaz gain, hirietako hurrek landa-inguruneetako haurren bizitzari buruz ere ikasten dute, eta alderantziz. Gure munduaren interpretazioan eragina dute eta interakzioaren espazio garrantzitsua da. Umeei jarrera aktiboa dute komunikabideen aurrean. Guraso, irakasle eta lagunen ideiak bitartekariak dira, filtro gisa funtzionatzen dute, haien baloreek eragin handia edukian audiobisualen interpretazioan.

Herrialde industrializatuetan, bai eta Afrikan eta garabidean diren beste eremu batzuetan ere, jendea komunikazio teknologia berriekiko mendekotasunean sozializatu da.

- **GENERO IDENTITATEA ETA HARREMAN INTIMOAK**

Kontzeptuak:

- **SEXUA:** Arra edo emea bereizten dituzten ezaugarri biologiko, anatomiko eta fisiologikoa da. Ezaugarri horien artean sexu-organoak, sexu kromosomak eta bigarren mailako ezaugarriak sartzen dira. Ezaugarri naturala da eta funtsean aldaezina.
- **GENEROA:** Gizarte jakin batean gizon eta emakume izateari lotuako itzaropenei, rolei eta portaerei buruzko eraikuntza sozial eta kulturala da. Generoa desberdintasun biologikotatik haratago doa, eta alderdi psikologikoak, emozionalak eta sozialak hartzen ditu barnean.
- **ORIENTAZIO SEXUALA:** Orientazio sexualak adierazten du erakarpen emozionalaren, erromantikoaren edo sexualaren patroia dela pertsona horiekiko edo beste genero batekiko. Gizabanako baten sexu-identitatearen funtsezko zatia da. Orientazio sexuala berezko ezaugarria da eta ez da aukera bat. Hainbat indibiduoetan gertatzen da, eta denborarekin aboluzionatu daiteke. Garrantzitsua da sexu-orientazioen aniztasuna errespetatzea eta ulertzea pertsona baten orientazio sexuala pertsona horien integrala dela. Heterosexualitatea, homosexualitatea, bisexualitatea adibideak dira. Ezaugarri biologiko, sozial eta psikologikoen erlazio konplexua da oraindik ere ongi ulertzen ez duguna.
- **GENERO IDENTITATEA:** Gizarteratze prozesuaren bitartez, gure sexu, genero eta orientazio sexualaren bitartez garatzen dugun gure identitate pertsonala da. Gurengandik espero diren balio, jarrera, ezaugarria, gure izaerarekin nahasiko dira, gizabanako bezala nortzuk garen adieraziz.

- **GENEROAREN IKUSPEGI BINARISTA**

Dimorfismo sexuala existitzen da esatistikoki. Hegemonia kulturalak dio, gizaki guttiok pertsona eta gorputz oro arra ala emea izan behar dela eta ez dagoela modurik beste modu batean izateko. hegemonia kulturalak emakumeak eta gizonak desberdintzen ditu. Emakumeak femeninoak dira eta gizonak desiratu egin behar dituzte. Gizonak aldiz, maskulinoak dira eta emakumeak desiratu behar dituzte,

- SEXUALITATEA ETA GENEROA

Sexualitatea interpretazio kultural bat da. Sexualitatea eta generoa lotura estua dute, gainera desberdina da gizonentzako eta emakumeentzako, espektatiba, ereudak, rolak desberdinak dira. Sexualitatea gizonentzat, arlo positiboa da, estatusa eta prestigioa handitzeko baliabidea da eta naturala bezala ulertu egiten da. Emakumeentzan, aldiz, arlo negatiboa da arriskutsua, beldurgarria... bezala ikusen da, ahuldadea eta zaurgarritasuna ikusten da.

- BAINA ZER DA GIZON ETA EMAKUME IZATEA GENEROAREN ALDETIK?

★ Emakume izatea gaitasun asko eta gainera bereziak izate eragiten du umeak izateko gaitasuna... ederrak izateko jaiotzen dira eta besteak zainzteko jarduerarekin hortaz emakumea emetasun bezala ikusten da. Gizona izatea, aldiz, gaitasun asko edukitzea, testosterona edukitzeak, desio sexual bukaezina, indartsuagoak, ausartagoak bezala ikusten dira, importanteak izateko eta arriskuak hartzeko jaiotzen dire beraz gizona: gizontasunarekin alderatzen da.

- MUTURREKO IKUSPEGI BIOLOGISTAK

Dio gizon eta emakume desberdintasunak (nortasuna, ekintza eta portaera) naturalak direla erabat, biologikoak eta genetikoak. Esaten du aurre-historiako rolak, animalien munduarekiko berdintasunak eta espezie, geneak eta hormonak direla eta gizonak definitzen duena ekimena, indarra, promiskuitatea dela da eta emakumeak berez, amatasuna, samurtasuna eta zaintzea.

Beste ikuspegi batzuek gizarte zientziak, gaitasuna batzuk naturak baldintzak mugaten dituzte, bain ahortik aurrera ikasi egiten dire eta aldakorrak dira. Sozializazioan garatu egin da emetasuna eta gizontasunaren kontzeptuak eta emakume eta gizon rolak barneratu egin dira. Horretarako ikaste prozesu bat egin da eguneroko interakzioan,

Gizontasuna eta emetasuna kolektiboki eraikitako molde eta espektatibak dira, gizona eta emakumea izateari buruz eraiki direnak. Generoaren arabera bereizten ikasten dugu. Jaiotzetik, desberdin tratatzen ditugu mutilak eta neskak. Umeek bi urte bete artez du oso portaera propioa eta helduen interakzioarekin genero eredu orokorretara egokitzen dira, hotz egin, ukitu eta atenditu egiten dira neska edo mutila den ala ez ikusita. Umeek neska femeninoa izatea eta mutilek masulinoak izateak ondorio positiboak dituela sinistu egiten dute, besteen espektatibak bete eta imitatu nahi ditzelako eta gurasoek uste dute seme-alaben bizitza errezagoa izango dela ereduera egokitzen badira.

Gizartean genero desberdinetarako ikasitako ezaugarri batzuk ditugu. Alde batetik neskek, rol espresiboa hartu dute, besteekiko dependetzia behar duena, obeditzea, lasaiak izatea eta pasibitatea egokitzen zaie ama bezala izan nahi dute.

Mutilek berriz, afektuen aurrean adierazpen eza, burujabetasuna, indarkeria, aktibotasuna, bortzikeria, ausarta, arrikuak hartu, aita bezala izan nahi dut.

Sexu bakoitzean, sozialki egokia dena, espero dena definitu eta ikasten dugu. Hau da jarrera maskulinoak eta femeninoak. Ikasketa hau inkonziencia eta kolektiboa da. Inkonziencia dela esan dezakegu jada izenaren bitartez, gorputzaren mugimenduaren bitartez, jolasak, txistek, erlazionatzeko moduak, emozioak... eragiten digute femeninoa edo maskulinoa dela pentsatzea.

Emozioen paretik, gizontasunak dakar gizonak bere buruarentzat izatea, hau da, espero den posizio sozial eta publikoan egotea eta arrakasta izatea mirespen soziala jasotzeko, hau bete ez ordean **haserrea** sortuko da. Bestetik, emetasuna besteentzat izatea dakar, hau da, besteen zaintza norberare buruaren aurretik jarri eta gorputza eta sexualitatea kontrolatzea, ohore eta errespetuaren seinalea da, hau ez gertatzean **kulpa** sentimendua areagotzen da.

Bi genero eredu sortu dira, kontrakoak direnak eta osagarriak dira. Eredu batek besteak baino posizio hobegoan dago; maskulinitateari balio gehiago ematen zaio, prestigio gehiago emakumeari baino.

- EMETASUN GENERO AGINTEAK

Besteentzako izan behar dira, besteekiko zerbitzu gaitasuna izan behar dute eta besteen ongizatearen arduradunak izan behar dira

Osatu gabeak dira, bere identitatea osatzeko gizona bat behar dute, hortaz maitasuna funtzeskoa da beren bizitzan.

Arrakasta eta indarrarekin bateraezina da eta obeditzaile aizan behar da, lasaia eta arauak betetzeko prest egon behar da. Gainera, ama izan bahar du, heldutasun eta zoriontasunaren sinonimo baitira eta horrek identitatea ematen dio eta gainera ederra eta desiragarria izan behar da onartua izateko, bestearen ebaluazio begiradaren bitartez.

Hau guztiagatik, emakumearengan daude nondorio emozionala hauek dira; beren buruaz ahaztu egiten dira, proiektu pertsonalak ahazten ditzte denbora eta esfortsua besteen ongizatean galtzen dutelako. Kulpa agertzen da besteei ongizatea ematen ez badiote eta bikoterik ez izatea autoestima txikia sortzen du. Bakarrik egoteko beldur dira eta bere familiarren lorpenen arabera baloratu egoten da, eta ez bere lorpen pertsonal edo profesionalen arabera. Hortaz, autoestimua besteen begietan zehar eraiki egiten da.

- **GIZONTASUN GENERO AGINITEAK**

Hauek ezin dute ezaugarri femeninoak izan, bestela behe mailakoak dira, boterea eta potentzia izan behar dute, norbait izan behar dira munduan eta errespetatua izan behar da. Indartsua izan behar da, eta beste gizonekin indarra maila frogatzeko lehian sartzeko prest dago. Burujabea eta ausarta izan behar da, beldurra alde batera utzi behar dute emozioak ez adierazi, segurtasuna eta konfidantza alde batera utzita. Azkenik, oldakorrak eta adoretuak izan behar dira, kemena adierazi behar dute eta egoera arriskutsu eta zailei aurre egin.

Hau guztiagatik, gizonengan dauden ondorio emozionalak hurrengoak dira; hasteko empatia falta, besteen emozioak ulertu eta identifikatzeko gaitasun falta dute. Portaera bortitzak harreman-modu bezala. Haserrea onartutako emozio. Distantzia afektiboa, kontaktu fisiko falta lagunen artean.

Hala ere, giontasun eta emetasun eredu berriak sortu dira, hau da, berdintasunezko eredu. Eredu tradizionalak berdintasunezko idealak sortu dira.

- **GENERO DISKRIMINAZIOA**

- Enplegua
- Soldata aldean
- Hezkuntza desorekak

- ★ **KRISTALEZKO SABAIA**

Emakumeek beren bizitza profesionalen momentu zehatz batean aurkitzen duten ikusezineko barrera da. Momentu horretara iristean, gutxi lortzen dute barrera hori zeharkatzea, beren bizitza profesionalen hazkuntza geldituz.

- **BERDINTASUNEZKO GIZARTEAREN ABANTAILAK**

- Gizonak sentimenduak eta emozioak adierazi ahal dituzte
- Gatazkak konpontzeko indarkerian ez oinarritutako metodoak ikasi
- Etengabe hoberenak direla ez dute frogatu behar. Laguntza eskatzen ikasten dute
- Femeninoak kontsideratuak diren ezaugarriak, pertsonen garapen integralarenzako garrantzitsuak direla ikasten dute.

- Emakumeak, askeago eta independenteagoak izago lirateke, autoestima altuagoa izan eta erabakiak autonomiaz hartzea ikasiko lukete, Beste pertsoneri subordinaturik ez egotea ikasiko lukete eta beren denbora hobeto kudeatzen ikasiko lukete.

- Biek, sexualitatearen aberastasuna ikasiko lukete, berdintasunezko bikote erlazioak aurrera eramateko gaitasuna, seme-alaben hezkuntza eta zaintza partekatu egingo lukete eta komuna partekatzen eta indibiduala errespetatzen duen familia harreman ereduia izango lukete.

- **FEMENISMOA**

“Feminismoak ez du inoren nagusitasuna aldarrikatzen. Alderantziz, feminismoa, hasiera hasieratik eta gaur arte, gizon eta emakumeon arteko berdintasuna defenditzen duen ideologia da, berdintasuna, ez inoren lehentasuna.

• Feminismoa ez dago inolako talde, praktika edo gertakari historikora lotuta. Taldeen arteko eskubideen ezberdintasunari buruzko kontzientzia hartzean eta zerbait egin behar denaren sinismenetik sortzen da.


“Emakumeak gizonen eskubide berberak izan behar dituzten ideia defendatzen duen ideología.

- **IDENTITATEA**

• Identitateak sortzen dira testuinguru baten barruan, gure inguruan dauden balio, pentsamendua, ideia... ezaugarriak hartzen ditugu eta barneratzen ditugu.

Identitatearen funtzioa gure buruaren irudi on bat izatea da, guida bat izateko eta gure burua gai izateko oztopoei aurre egiteko. Testuinguruan barneratzeko balio du, burua kolektibotasun baten barruan ikusteko eta talde baten parte izateko.

Soziologiatik George Mead, identitatea bi alde dituela zioen, guk nola ikusten dugun gure burua eta besteek nola ikusten gaituzten.



Guk gure burua identifikatzeko momentuan gure ahalmenak aparte, hartzen dugu besteen jarrera gureiko.

kontuan

Soziologiatik Ervin Goffma, Identitatea rola zirela zioen (ikasle, irakasle, seme-alaba...) egoerearen arabera, rola bat betetzen dugu. Eta bizitza antzerkiarekin alderatzen du.

Psikologiatik, Sigmund Freud, identitatea, kultura sortua eta gure impulsoak mugatzeko balio du. Etengabe plazerra bilatzen gaude eta kulturaren mugarekin talka egindakoan nortasuna garatzen da.

Psikologiatik Jean Piaget,

- Garapen psikologikoa garrantzitsua da ulertzeko mundua.
- Ez gara jaiotzen ahalmen abstraktuarekin, sinboloak, lenguaia... garatzen dira gizarte bakoitzarekiko
- Besteen jarrerak (hitzak barne) eragiten gaituzte gure burua ikusteko
- Gure buruaz uste duguna, gure identitatea, ez dago bakarrik gure ahalmenetan oinarrituta, besteen jarrerak eragiten gaituzte.